

## MUgi Hadi-ren bitartez: Gazara bidean, 2. flota, murgildu hadi!

2011/02/14

Gazarekiko zein Askatasunaren II. Flotarekiko Elkartasun Eguna dela medio, Espainiar estatuko hainbat unibertsitatetan ospatuko dena, MUgi Hadi ikasle elkarteak hurrengo ostegunean, hilak 17, hitzaldi bat antolatuko du Mondragon Unibertsitateak Bidasoan duen kanpusean. Hitzaldia Castellon-go Unibertsitateko ikaslea eta aldi berean palestinarra den Ayman Qwaiderekin emango du. "Rumbo a Gaza" kanpaina "Euskadi Rumbo a Gaza" taldeko kideen laguntzarekin eta "Catalunya Rumbo a Gaza"-ko kideek aurkeztuko dute.

Non: Bidasoko kanpuseko 203. gelan

Noiz: Osteguna, hilak 17, 17.00etan



MURGILDU HADI!